



EIBARKO

EUSKARAREN DIAGNOSIA

2025

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1.- SARRERA | 03 |
| 2.- TESTUINGURUA | 04 |
| 3.- PROZESUA | 06 |
| 4.- DIAGNOSIA. Nondik gatoz? | 11 |
| 4.1 Zenbat gara eta nolakoak gara Eibarren? | 11 |
| 4.2. Zein doinu dauka gure ahotsak? | 14 |
| 4.3. Zein da herritarren iritzia? | 27 |
| 5.- ONDORIO NAGUSIAK | 45 |
| 6.- BIBLIOGRAFIA | 48 |

1. Sarrera

Eibarko Udalak eta Akebai plataforma herritarrak Ahize-AEK gonbidatu dute hausnarketa prozesu baten bitartez Eibarko Hiria Euskararen Plan Estrategikoaren balorazioa egitera, eta bertako euskararen egoeraren inguruko diagnostiko txostena sortzera. Ildo horretatik, txosten honen helburua da:

Dokumentu honetan jaso nahi izan da egungo Eibarren argazkia; izan ere, azken urteotan Udalak euskararen arloan izan dituen helburuak eta ekintzak aztertu eta baloratu dira parte-hartze prozesu batean. Bide horretan ez da bakarrik aritu; herritarrekin, herritarren ordezkariekin eta udal teknikariekin zein herriko eragileekin elkarlanean egindako lanaren emaitza da hau. Beraz, gure eskerrik beroenak adierazi eta eman nahi dizkiegu hilabete hauetan, aldez edo moldez, parte hartu duten eta bidelagun izan diren eibartarrei eta eragile guztiei.

2. Testuingurua

Eibar Gipuzkoa mendebaldean dagoen udalerrria da. Debabarrena eskualdean dago, eta bertako herririk jendetsuena da. Eustateko 2025eko datuen arabera 27.118 biztanle ditu, eta Gipuzkoako hiri jendetsuenen artean laugarrena da. Ego ibaiaren ertzean dago, eta Bizkaiarekin muga egiten du. Honakoa da bere azalera: 24,84 km²

Eibarko Udalak Euskara Biziberritzeko Euskara Plana (EBPN¹) izan zuen 2011-2014 urte bitartean; 2015ean, Eibarrera egokitutako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP²) 2016-2025 onartu eta garatu zuen Udalak.

Plan Estrategiko hori 50 herritarren parte-hartzearekin diseinatu zen. 2016an adostu ziren oinarriak, eta 2017an martxan jarri.

Planaren helburu nagusia herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatzea eta saretzea izan da, hamar urteren ostean Eibar euskaldunago bat izan zedin. Fokua bereziki Eibarko haurren eta gazteengan jarri zen.

Horretarako, herritar-partaidetzan oinarritzen den plataforma ireki bat sortu zen: AKEBAI. 2016a denen ahaleginak eta indarrak batzeko unea zela iritzi zioten, Eibar euskaldunago egiteko.

Akebairen egituraren barruan kokatzen da Akebai Batzarra. Bertan bildu dira Akebairen bueltan ari diren edo aritu diren pertsonak (ekipoan, partaidetza-mahaietan, egitasmo zehatzetan edo 'Akekide' izaera dutenak. Bertan, Akebairen proiektu, egitasmo eta zereginen berri ematen da, kontraste talde bat da nolabait.

2017tik hona urtero egin dira batzarrak, behararen arabera, bat, bi edo hiru. Bi funtzio nagusi izan ditu:

1. Plan estrategikoan zehaztutako helburuak era sortzaile eta ezberdin batean gizarteratzea.
2. Planaren jarraipena egitea eta iritzi zein proposamenak jasotzea.

Batzarraz gain, familia, hezkuntza, kirola eta kultura mahaiak osatu ziren. Urtez urte desegin egin dira mahaiak, parte hartzaileen nekea, denbora falta edo konpromiso faltagatik.

Hasieratik sistematikoki martxan egon dena Akebai ekipoa izan da. Hiru astean behin bildu dira, eta bereziki planaren jarraipenaz eta doiketaz arduratu da. Urteko kudeaketa-planaren diseinua eta jarraipena egitea izan du eginkizun nagusi.

¹ Euskara biziberritzeko Plan Nagusia.

² Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

Horrez gain, komunikazio-mahai bat ere egon zen Akebairen ibilbidearen hasieran, eta egitasmoaren alderdi komunikatiboa landu zuen. Denborarekin, ordea, bertan behera geratu zen.

Udalerriko euskara planaz gain, Udaleko Erabilera Plana (2023-2027) onartua du Eibarko Udalak, eta Goi Mailako Bikain ziurtagiria³ ere eskuratu zuen, 2022an.

³ Bikain-Euskararen kalitate-ziurtagiria da. Bere bitartez esparru publikoan erakundeen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzen, egiaztatzen eta aitortzen da.

3. Prozesua

Helburu zehatzak:

- Orain arte egindako ibilbidea aztertu eta gako eta palanka nagusiak identifikatzea.
- Udalerriko eta eskualdeko datu soziolinguistikoak aztertzea.
- Herritar eta eragileekin partaidetza-prozesua antolatu eta dinamizatzea.
- Partaidetza prozesutik ateratako ondorioak landu eta 2026-2035 epealdirako Euskararen Plan Estrategiko berria diseinatzeko baliagarriak izan daitezen sistematizatzea.

Zeharkako helburuak:

- Orain arte egindakoari garrantzia eman eta herrian egindako lanaren eragina ikusaraztea.
- Euskararen aldeko babes soziala indartzea.
- Herritarren eta Udalaren artean elkarlanerako guneak indartzea.

Prozesua aurrera eramateko hurrengo ibilbidea jarraitu da:

1. **Egungo egoera ezagutzea:** euskararen erabileraren datu soziolinguistikoak aztertu eta landu dira, bai udalerrikoak, bai eskualdekoak eta bai herrialdekoak. Era berean, parte-hartze prozesu baten bitartez, udalerriko eragile eta herritarren iritzia eta ekarpenak jaso dira.
2. Ibilbidea aztertuta, **gako eta palanka nagusiak identifikatzea:** Eibarren, egun, euskararen normalizazioa bultzatzeko egin den bidea ezagututa (egitasmoak, jarduerak, dinamikak eta abar) indarguneak eta ahuleziak ezagutu dira, eta aurrera begirako palankak identifikatu.
3. Jasotako informazio eta ondorioetatik abiatuta, **etorkizuneko lerro nagusiak** definitzeko hausnarketa prozesua garatu da: hausnarketa hori udaleko ordezkari tekniko eta politikoeekin, diziplina eta askotariko arloetako herriko eragileekin eta parte hartu nahi izan duten herritarrekin batera egin da.

Proiektu honek, erreferentzia gisa, kontuan izan du Udal politika eta jarduera arautzen duen Lege markoa:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera soziala sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskararen Erabilera Arautzekoan, dauka bere hastapeneko erreferentzia. Herri aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz,

herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

- Era berean, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, lanpostuetako hizkuntza eskakizunen derrigorrezko datari dagokionez.
- Aipatu diren lege horietan xedatutakoaren arauz, 19 / 2024 dekretua, otsailaren 22koa, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. Arau honen xedea da euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzionalak eta administratiboak arautzea Euskadiko toki-entitateetan eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea garatzeko eta, orobat, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko toki-administrazioekin dituzten harremanetan.
- 2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailaren 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.
- Azkenik, kontuan hartu beharrekoa da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa. Legearen 6. eta 7. artikuluek xedatutakoaren arabera, euskara tokiko erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu egin beharko da erakundeekin harremanak izateko orduan herritarrak nahi duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- Azkenik, kontuan hartu beharrekoa da 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

Partaidetza izan du oinarri, bai diagnostikoa osatzeko, bai kontrasterako. Alde batetik, Eibarko Udaleko ordezkari tekniko eta politikoekin eta Akebai plataformarekin talde eragilea osatu da, antolaketa, komunikazioa eta koordinazioa bideratzeko. Bestalde, kontraste eta partaidetza prozesuak martxan jartzeko bi eztabaida talde osatu dira.

Ahizeko aholkulariak arduratu dira prozesua dinamizatzeaz eta hortik eratorritako lan-plangintza garatzeaz, betiere, Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinatuta.

Prozesua hiru fase nagusitan egin da. Horrez gain, **hainbat informazio iturri** izan da eta horietatik jasotakoa aztertu eta ondorioak batu dira, Eibarko euskararen egungo diagnostikoa osatzeko:

1. **Datu soziolinguistikoaren azterketa:** hainbat datu aztertu dira galdetegiaren eta elkarrizketaren informazioa osatzeko; besteak beste, erroldako ezagutza datuak, euskaltegiaren matrikulazio datuak, inkesta soziolinguistikoaren datuak, kalera-erabilera datuak... Azken 20 urteetako datuak hartu dira kontuan.
2. **Datu kualitatiboaren ustiapena:** bigarren informazio iturria, eragileei eta herritarrei egindako galdetegi eta elkarrizketak izan dira. Horretarako, galdetegi bidez herritarrei galdetu zaie egungo Eibarko euskararen egoerari buruz, bai eta orain arte indarrean egondako Plan Estrategikoaren ekintzei buruz; 114 herritarren erantzunak jaso dira. Hausnarketa eta iritzi kualitatiboak eta subjektiboak izanik ere, nahitaezkoak izan dira diagnostikoa osatzeko.
3. **Parte-hartzerako espazioak:** batetik, hautatutako herritar batzuei bakarkako elkarrizketak egin zaizkie; guztira 12 pertsona izan dira (9 emakumezko eta 3 gizonezko).

Datu bilketa

Datu bilketa eta diagnostikoa osatzeko galdetegiak zabaldu dira. Era berean, diagnostikoa osatzeko hainbat herritar elkarrizketatu dira esparru desberdinetako informazio zehatzagoa jasotzeko asmoz.

Datu bilketa:

1. Taula: Galdetegiaren datu bilketa. Iturria: Ahize-AEK

| Datu bilketa | | | |
|--------------|------------------------------|---------------|-----|
| Data | Galdetegiak | Parte-hartzea | |
| Urria | - Eibarren euskararekin zer? | Euskaraz | 106 |
| | | Ele bietan | 8 |
| | | Guztira | 114 |

2. Taula: Elkarrizketatuen xehetasunak. Iturria: Ahize-AEK

| Elkarrizketatuak. Data: azaroa |
|--|
| <ul style="list-style-type: none">- ...eta kitto! Euskara Elkarteko kidea eta Akebaiko ekipoko kidea.<ul style="list-style-type: none">- Euskaltzalea eta euskara irakaslea.- Euskalgintzako eragilea eta Akebaiko hasierako kidea.<ul style="list-style-type: none">- Festa batzordeko kide bi.- Euskara-irakaslea eta Akebaiko hasierako kidea.<ul style="list-style-type: none">- Euskaltzalea eta Akebaiko kidea.- Euskara batzordeburua izana.<ul style="list-style-type: none">- Euskara-teknikaria.- Bertso eskolako kidea.- Euskara batzordeko kide ohia.<ul style="list-style-type: none">- Eskola bateko irakaslea.- Euskara batzordeko zinegotzi ohia eta Akebaiko hasierako kidea. |

Elkarrizketatu batek hasieran baiezkoa eman zuen, eta erantzunak mezu bidez bidaliko zituela esan. Diagnostikoa idazterako ez dugu jaso haren erantzunik. Beste elkarrizketatu batek, familia arazoak tarteko, ezezkoa eman zuen.

Kontrastea:

Datuak kontrastatzeko eta partaidetza sustatzeko eztabaida talde bi egin dira. Batean, herriko eragileek parte hartu dute; bestean, udaleko teknikari eta zinegotziek bi txandatan banatuta.

| Partaidetza prozesua | | | |
|----------------------|-----------------------------|-------------------------|------------------------------|
| Data | Lan-mahaia | Parte-hartzaile kopurua | |
| Azaroak 11 | Herriko eragileak | 21 | 14 emakume, 7 gizon. |
| Azaroak 12 | Teknikariak eta zinegotziak | 19 | 12 emakume, 7 gizon. |
| GUZTIRA | | 40 | 26 emakume, 14 gizon. |

3. Taula: Partaidetza prozesuko datuak generoarekiko sailkatuta. Iturria: Ahize-AEK

Galdetegi berezia Eibarko ikastetxeetan

Gazteen iritzia gertutik ezagutzeko galdetegi berezia zabaldu da Eibarko ikastetxeetan. Galdetegiaren xedea izan da euskararekiko duten iritzia gertutik ezagutzea. Guztira, 428 ikaslek erantzun dute.

Guztira, DBH (3 eta 4. mailak) eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailan zabaldu da galdetegia.


4. Diagnosia: nondik gatoz?

4.1 Zenbat gara eta nolakoak gara?⁴

Azken 25 urteetan biztanleria kopuruak apur bat behera egin du: 2001ean 28.440 biztanle zituen Eibarrek, eta, 2025ean 27.118. Bost urteko tarteak aztertuz, gorabeherak izan ditu biztanle kopuruak. 2001etik 2006ra koxka bat jaitsi zen; eta beherantz jarraitu zuen. 2021ean 37 biztanle irabazi zituen. Ondoren, 156 galdu, eta 159 igo. Guztira, 1.322 biztanle galdu ditu Eibarrek mende laurdenean.

Egungo biztanleria datuen arabera, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira; dena den, aldea ez da esanguratsua:


Biztanleria datuen bilakaera (2001-2025)



1. Irudia: Biztanleria datuen bilakaera (2001-2025). Iturria: EUSTAT

⁴ Datuak EUSTAT Euskadiko Datu Estatistikoaren Erakundearen bidez jaso ditugu.

2024ko Eibarko biztanleria datuak adina eta sexuaren arabera




2. Irudia: 2024ko Eibarko biztanleria datuak adina eta sexuaren arabera. Iturria: EUSTAT

Biztanleria datuen bilakaera jatorriaren arabera (2001-2024)

Eibarko biztanleriaren jatorriari erreparatuta, gora egin du Estatu Espainiarretik kanpo jaiotako kopuruak: 20 urtean 11 puntuko igoera egon da. Ordea, EAetik kanpoko Estatu Espainiarreko beste lurraldeetatik etorritakoak jaisten ari dira apurka-apurka: azken 24 urteetan, 10 puntu. Bereziki esanguratsua da Estatu Espainiarretik kanpoko biztanleriaren igoera; izan ere, 2024ko datuen arabera, biztanleen %14 (3785 herritar) dira Eibarrera etorritako Estatu Espainiarretik kanpoko atzerritarrak.

Estatutik kanpoko atzerritar horien jatorria, INEren azken datuen arabera (2021), Maroko, Aljeria eta Tunisia dira, hurrenez hurren.



3. Irudia: Biztanleria datuen bilakaera jatorriaren arabera (2001-2024). Iturria: INE

4.2 Zein doinu dauka gure ahotsak?⁵

Euskararen ezagutza datuak

Datuek erakusten dutenez, euskararen ezagutzak goranzko joera txikia izan du azken 30 urteetan. 1991tik 2001erako tartean 5 puntu egin zuen gora ezagutzak % 47tik % 52ra. Hurrengo 10 urteetan bi puntu behera eta hurrengo hamarkadan % 53an kokatu zen 2021eko datuek erakusten dutenez.

Ia-euskaldunei dagokienez 7 puntuko igoera izan zen 1991 eta 2011 urte bitartean, eta 2011tik 2021erako hamarkada horretan 4 puntu egin zituen behera %19an kokatu arte. Euskaldun eta ia-euskaldunen datuak bateratuta eibartarren % 72,4 osatzen dute. Hau da, Eibarren, egun, 10tik 7k baino gehiagok euskararen inguruko ezagutzaren bat du.

Erdaldunen kopuruari erreparatuz, oster, 1990eko hamarkadatik hona beheranzko joera du. Beheranzko handiena 1991tik 2001erako tartean izan zuen 12 puntuko beherakadarekin; hurrengo hamarkadan bi puntu egin du gora 2021ean % 27an kokatuz.


Ezagutzari dagozkion azken datuak 2021ekoak dira, eta, horiek zenbakitara eroanda, honako hau da banaketa: % 53 euskaldun, % 19 euskaldun hartzaile eta % 27 erdaldun. Aipagarria da 2011-2021 urteen artean euskaldun kopuruak puntu bi egin zuela gora. Arrazoietako bat izan daiteke euskaldun hartzaileak euskaldundu izana.

4. Taula: Eibarko Euskararen ezagutza datuen bilakaera (1991-2021). Iturria: EUSTAT

| | 1991 | 2001 | 2011 | 2021 |
|------------------------------|------|------|------|------|
| Euskaldunak | % 47 | % 52 | % 51 | % 53 |
| Euskaldun hartzaileak | % 16 | % 19 | % 23 | % 19 |
| Erdaldunak | % 37 | % 29 | % 25 | % 27 |

⁵ Ezagutza datuak (aitortuak) Euskal Estatistika Erakundetik (EUSTAT) hartu dira.

Egungo datuak (2021)



■ Euskaldunak ■ Ia-euskaldunak ■ Erdaldunak

4. Irudia: Eibarko Euskararen ezagutza (2021). Iturria: EUSTAT

Lehen hizkuntza

Haurrak hiru urte bete arte gurasoengandik edo berarekin bizi direnengandik eskuratutako hizkuntza edo hizkuntzak dira lehen hizkuntza. 2021eko datuen arabera, Eibarren erdiak baino gehiagok (% 54,44) gaztelania jasotzen du lehen hizkuntza moduan. Euskara bakarrik % 28,61ak jasotzen du, eta % 10ak ditu biak, euskara eta gaztelania nahastean, lehen hizkuntza. Gainerako % 6,90ak, berriz, beste hizkuntza bat du lehen hizkuntzatzat.

Euskara bakarrik jasotzen dutenen kopurua murrizten ari da. Azken 20 urteetan puntu bat egin du behera; 1991ko ehunekoarekin alderatuz gero, 8,4 puntu jaitsi da. Lehen hizkuntza gaztelania bakarrik dutenen kopuruak 2,5 puntu egin du gora.

Horrez gain, lehen hizkuntzatzat gaztelania eta euskara dutenak, biak nahasian, 2,42 puntu igo da azken 20 urteetan; 1991etik hona, berriz, 4,29 igo da.

Lehen hizkuntza beste hizkuntza bat dutenen ehunekoak gorantz egin du urtez urte. 2011n, %4,49 ziren; 2001ean, % 3,44 eta 1991n % 2,01.


Datu horiek aztertzean, migrazio-mugimenduei erreparatu behar zaie berriro. Izan ere, igoera izan dute euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat jaso dutenek. Datuek biztanleriaren aldaketa erakusten dute.

Lehen hizkuntzak lotura handia izan ohi du euskara-gaitasun erlatiboarekin; hots, euskaraz ala erdaraz erosoago aritzearekin. Datu horietatik inferitu daiteke, beraz, proportzioan ez dagoela erosoago euskaraz aritzen den euskaldun gehiago Eibarren, baizik eta erdaraz aiseago egiten duen gehiago⁶.

Datuok generoaren arabera aztertuz gero, emakumezko gehiago dago lehen hizkuntza euskara dutenak, % 52,54 hain zuzen ere.


⁶ Iñaki Lurrebasoren ikerketan oinarritua (*Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*. EHU).

Bilakaera (2001-2021)



5. Irudia: Lehen Hizkuntzaren bilakaera Eibarren (1986-2021). Iturria: EUSTAT

Egungo datuak (2021)



■ Euskara ■ Gaztelania ■ Biak ■ Beste bat

6. Irudia: Lehen Hizkuntza Eibarren (2021). Iturria: EUSTAT

Etxeko hizkuntza

Etxean erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, gaztelania da nagusi (% 58,55), euskara darabiltenak, ostera, % 19,41 dira. Etxean euskaraz eta gaztelaniaz nahasian aritzen direnak % 17,26 dira, euskara darabiltenak baino 2,15 puntu gutxiago.

Beste hizkuntza bat darabilte eibartarren % 4,77k. Urtez urte igotzen ari da kopuru hori: 2011tik hona 2,31 puntu igo da. 2001etik, berriz, 3,18 igo da.

Etxean euskara bakarrik erabiltzen duten eibartarren kantitatea ez da askorik aldatu, 2001etik % 20-19 inguruan egon da. 2011tik 2021era gaztelaniaz bakarrik aritzen direnen kopuruak izan du beherakada eta 5,33 puntukoa izan da.


Datuok adierazten dute lehen gaztelaniaz bakarrik aritzen ziren etxeetan, egun euskaraz eta gaztelaniaz aritzen direla.

Bilakaera (1991-2021)

5. Taula: Etxeko Hizkuntzaren bilakaera (1991-2021) Eibarren. Iturria: EUSTAT

| | 1991 | 2001 | 2011 | 2021 |
|-------------------|---------|---------|---------|---------|
| Euskara | % 20,56 | % 19,30 | % 20,14 | % 19,41 |
| Gaztelania | % 60,21 | % 60,07 | % 63,88 | % 58,55 |
| Biak | % 18,50 | % 19,03 | % 13,52 | % 17,26 |
| Beste bat | % 0,74 | % 1,59 | % 2,46 | % 4,77 |

Egungo datuak (2021)



■ Euskara ■ Gaztelania ■ Biak ■ Beste bat

7. Irudia: Etxeko Hizkuntza Eibarren (2021). Iturria: EUSTAT

Hizkuntzen kale-erabilera datuak⁷

Aurreko datuen aldean, beste metodologia batekin lortzen da kaleko erabilera: behaketaren bidez. Metodologian soilik ez, unibertsoan ere badago aldea: zentsuek Eibarko herritar guztiei buruzko datu estatistikoak ematen dituzte; kaleko neurketan, berriz, behatzen da zein den hizkuntzen erabilera Eibarko kaleetan, kontuan hartu gabe hiztuna Eibarkoa den ala ez —alegia, kalean ez dabilzan eibartarrak ez dira sartzen kaleko neurketan, eta bai zentsuan; aldi berean, Eibarko kaleetan dabilzan kanpotarrak badaude neurketan, eta ez zentsuan—.

1989an hasi zen ...eta kitto! Euskara Elkartea kale-neurketak egiten. Hurrengo bilakaera izan du 2014ra bitartean:

6. Taula: Hizkuntzen kale-erabilera Eibarren. Iturria: ...eta kitto! Euskara Elkartea

| Urte tarte | Guztira euskaraz (%) |
|------------|----------------------|
| 1989-2000 | 20,59 |
| 2001-2005 | 23,70 |
| 2006-2010 | 24,58 |
| 2011-2014 | 22,18 |

2016an eta 2021ean Soziolinguistika Klusterraren bitartez egin ziren neurketak. Neurketa horiek iraila-urria bitartean egin izan dira, eta hurrengo emaitza izan dute:


⁷ Eibarko datuak ...eta kitto! Euskara Elkartearen zein Soziolinguistika Klusterraren bidez eskuratu dira.

Beheranzko joera du euskararen erabilerak 2010etik aurrera.

Datu horiek euskararen ezagutza datuekin konparatuz gero, aldea nabari da. Hau da, ondoriozta daiteke dakiten guztiek ez dutela euskaraz egiten haien artean.

Horrez gain, atzerritik etorritakoen biztanle kopurua handitzen ari da, eta euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntzak gero eta gehiago entzuten dira.

Horrez gain, kale-erabileran ez dago alde nabarmenik sexuaren arabera: % 13,1eko erabilera dute emakumeek eta 12,8koa gizonezkoek.



8. Irudia: Hizkuntzen kale-erabilera Eibarren (2016 eta 2021). Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Hizkuntzen kale erabilera datuak adinaren arabera

Erabilera-datu orokor horien atzean, alde handia dago adinaren arabera. Norabidea argia da, 2021ean: haurren artean erabiltzen da euskara gehien (% 30,2). Gero, heldu gazteak (% 13,6), heldu nagusiak (% 10,8) eta ondoren datoz gazteak (% 9,5). Jauzia dago euskararen erabileran nerabeen eta heldu gazteen artean.


Erabilera-joerei dagokienez, badira kontuan hartu beharreko faktore bi neurketa horretan. Batetik, umeen eragina: haiek egiten dute euskaraz gehien; gainera, haiek aurrean egoteak eragina du nagusien jardunean ere. Haurrek beste adin-tarteetako hiztunekin elkartzean egiten dute euskara gehiago.

Bilakaera adinaren arabera (2001-2021)

7. Taula: Euskararen kale-erabilera neurketaren bilakaera adinaren arabera Eibarren (2001-2021). Iturria: ... eta kitto! Euskara Elkarte eta Soziolinguistika Klusterra

| Tartea | Umeak (%) | Gazteak (%) | Helduak (%) | Adinekoak (%) | Guztira (%) |
|-----------|-----------|-------------|-------------|---------------|-------------|
| 2001-2005 | 39,08 | 27,56 | 17,68 | 21,25 | 23,7 |
| 2006-2010 | 39,53 | 29,87 | 19,90 | 21,60 | 24,58 |
| 2011-2014 | 40,78 | 25,88 | 17,65 | 17,78 | 22,18 |
| 2016 | 31,1 | 13 | 13,3 | 8 | 15,1 |
| 2021 | 30,2 | 9,5 | 11,7 | 5,6 | 13,0 |

Egungo datuak (2021)



9. Irudia: Euskararen kale-erabilera Eibarren adinaren arabera (2021).

Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Euskalduntzea: euskaltegietakiko matrikulazio datuak

Helduen euskalduntzeari dagokionez, bi euskaltegi daude Eibarren: Eibarko Udal Euskaltegia eta Eibarraldeko AEK. Bi euskaltegietan A1 mailatik C2 mailara arteko ikastaroak eskaintzen dira. Azpiko taulan 2021etik aurrerako datuak ageri dira. Ikus daitekeenez, urtez urte gora egin du euskara ikasten ari direnen kopuruak. 2021/2022 ikasturtetik 2024/2025 ikasturtera 110 ikasle gehiago ari dira euskara ikasten.

Datuok aztertuz, ikus daiteke B2 eta C1 mailetan ari dira ikasle gehien; ondoren, A1 mailan. B1 eta A2 mailetan ikasle gutxiago ibili izan diren arren, urtero jaso dituzte ikasleak. Azkenik, C2 mailan aritu dira ikasle gutxien, nahiz eta 2022/2023 ikasturtean gorakada izan zuten.

8. Taula: Euskara ikasleen matrikulazio datuak ikasturte eta mailaren arabera.
Iturria: Eibarko Udala eta Ahize-AEK

| IKASTURTEA | IKASLEAK GUZTIRA | IKASLEAK MAILAKA | | | | | |
|------------|---------------------|------------------|----|----|-----|-----|----|
| IKASTURTEA | | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | C2 |
| 2021/2022 | 305 | 81 | 32 | 39 | 57 | 80 | 16 |
| 2022/2023 | 394 | 100 | 44 | 59 | 50 | 114 | 27 |
| 2023/2024 | 468 | 77 | 81 | 90 | 81 | 131 | 8 |
| 2024/2025 | 415 | 97 | 39 | 35 | 108 | 122 | 14 |

Berbetan programa

...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan proiektua jarri zuen abian duela 23 urte inguru. Helburu izan du euskara praktikatzeko gune seguruak sortzea. Bilakaera konstantea izan du, eta 2015ean eman zuen jauzi nabarmena ema zuen, 10 talde izatetik 20 izatera igaro baitziren. 2015etik 2020ra 100 berbalagun inguru aritu dira proiektuan.

Pandemia ostetik gorantz egiten jarraitu du partaidetzak, eta 2025ean, 20 talde aritu dira, 111 berbalagun zehatz-mehatz.

Elkartearen iritziz, programaren egonkortasuna handia da; izan ere, berbalagun askok hamar urte baino gehiago daramatzate programan.

Euskaraldiako datuak

2018tik Euskaraldian parte hartu dute eibartarrek. Guztira, 1.500-2.000 herritarrek parte hartu dute. Beheko taulan ikus daitezke urtez urteko datuak:

9. Taula: Euskaraldiko norbanakoen partaidetza datuak Eibarren. Iturria: Euskaltzaleen Topagunea

| EDIZIO-URTEA | GUZTIRA | AHOBIZI | BELARRIPREST |
|--------------|---------|---------|--------------|
| 1-2018 | 3.259 | 2.343 | 916 |
| 2-2020 | 2.257 | 1.730 | 527 |
| 3-2022 | 2.139 | 1.643 | 496 |
| 4-2025 | 1.524 | 1.219 | 305 |

Datu hauen arabera esan daiteke, lehen edizioan izan zen parte hartzea ez dela berreskuratu. Bigarrenean izan zen jaitsiera nabarmena, eta antzeko bideari jarraitu zion 2022ko izen-emateak. 2025ean ere beste koska bat egin du behera.

Nabarmenezkoa da 2020ko Euskaraldia pandemia betean izan zela, eta parte hartzea nabarmen jaitsi zela, orokorrean.

10. Taula: Euskaraldiko entitateen partaidetza datuak Eibarren. Iturria: Taupa mugimendua

| EDIZIO-URTEA | ENTITATEAREN TAMAINA | KOPURUA |
|--------------|----------------------|-----------|
| 4-2025 | 0 <-> 10 | 32 |
| | 11 <-> 50 | 16 |
| | 51 edo gehiago | 20 |
| | GUZTIRA | 68 |

Hezkuntza eta kultura arloko entitateak izan dira nagusi Euskaraldiaren azken edizioan, 19 eta 12 entitatek eman baitute izena hurrenez hurren. Merkataritza eta zerbitzu profesionalen arloa izan da hurrengoak: 6 entitatek eman dute izena.

Tamainari dagokionez, nabarmenezkoa da entitate txikiak izan direla nagusi. Ondoren, 50 lagunetik gorako entitate gehienak hezkuntza arlokoak izan dira.

Gizartean euskaraz aritzeko joera ez ezik, euskararen sustapena gehien egiten diren arloak izan ohi dira hezkuntza eta kultura. Datuok baieztapen hori berresten dute.


4.3 Zein da herritarren iritzia?

Arestian aipatu bezala, herritarren iritzia jasotzeko bi bide erabili dira. Batetik, herritarren artean zabalduko galdetegiak eta, bestetik, egindako banakako elkarrizketak eta arloka antolatutako lan-mahaiak.

Herritarren galdetegietako emaitzak

Galdetegiari dagokienez, 2025eko urrian galdetegi bat zabaldu zen herritarren artean, haien iritzia jasotzeko asmoz, bai indarrean egon den euskara planaren inguruan, bai aurrera begira egin nahi izan dituzten proposamenen inguruan.

Bi galdetegi zabaldu dira: bata, euskaraz; bestea gaztelaniaz. Guztira, 114 erantzun bildu dira. Euskarazko bertsioak 709 ikustaldi izan ditu, eta 106 herritarrek hasi eta amaitu dute. Gaztelaniaz zabaldu zen galdetegiak, berriz, 167 ikustaldi izan ditu, eta 8 herritarrek bete zuten.




10. Irudia: Galdetegi euskaraz erantzundakoen adina (%). Iturria: Ahize-AEK

Euskarazko galdetegia erantzun dutenen ia erdia 41-60 urte artekoak izan dira; haien ondoren, 26-40 urte artekoen erantzunak jaso dira, baina 15-25 urte artekoen zein 60 urtetik gorakoen erantzunak nabarmen gutxiago izan dira.

Gaztelaniaz zabaldu zen galdetegian, erantzunen erdiak 26-40 urte artekoak izan dira; jarraian, 41-60 urteko herritarrek erantzun dute (% 37,50).

Inkestaren lehen bi galderak orokorrak izan dira: euskararen sustapenean markatu beharreko lehentasunei buruz galdetu zaie eibartarrei. Erantzun bat baino gehiago aukeratu behar izan dute.




11. Irudia: Galdetegia gaztelaniaz erantzundakoen adina (%). Iturria: Ahize-AEK

Zure ustez, zein esparrutan eragin behar da lehentasunez?

Herritarren ustez, eta grafikoetan ikus daitekeenez, euskararen sustapena egiteko lehentasunezko esparrua aisialdia da (61 erantzun). Gazteak eta familia dira hurrengo esparruak (60 erantzun izan dituzte biek ala biek). Ondoren, irakaskuntzan eragiteko beharra adierazi dute (40 erantzun).

Kirola, eta etorri berriak esparruek 35 erantzun inguru jaso dituzte.

Lehentasun apalagoa eman diete beste gai batzuei, hala nola, ingurune digitalari, kulturari, merkataritzari / ostalaritzari, administrazioari zein Udalari.



12. Irudia: Galdetegiko erantzunetako lehentasunak handienetik txikienera ordenatuta. Laranja euskarazko erantzunak. Horiz gaztelaniazko erantzunak. Iturria: Ahize-AEK

Galdetegiko beste galderen erantzunen laburpena:

Aurreko plangintzaldiko ekintzak ebaluatu dira galdetegiaren bidez, herritarrek 1etik 4rako puntuazioa edo “ez dakit” erantzuteko aukera izan zuten. Horren emaitzen batez bestekoa dago hurrengo taulan.

11. Taula: Herritarrek Eibarko Plan Estrategikoan (2016-2025) egindako ekintzen gaineko balorazioa (1etik 4ra). Iturria: Ahize-AEK

| Ekintza | | Batez besteko puntuazioa | Ez dakit erantzun kopurua |
|---------|---|--------------------------|---------------------------|
| 1 | Euskaraldia: Ahobizi, Belarriprest | 3,20 | % 2,7 |
| 2 | Euskara ikasteko aukerak helduentzat. | 3,17 | % 8,8 |
| 3 | Euskararen eguna, abenduaren 3an. | 3,09 | % 2,7 |
| 4 | Eibarren AKEBAI plataforma herritarra. | 3,04 | % 11,5 |
| 5 | Kirola euskaraz egiteko aukerak. | 3,03 | % 12,4 |
| 6 | Pertsona etorri berriak euskarara hurbiltzeko baliabideak. | 3,02 | % 21,2 |
| 7 | Hiriko euskarazko aisialdi eskaintza ume eta gazteentzat. | 2,95 | % 10,5 |
| 8 | Astindu hizkuntza-eskubideen ataria. | 2,93 | % 48,7 |
| 9 | Eibarren euskaraz bizitzeko aukerak. | 2,88 | % 19,5 |
| 10 | Euskara erabiltzeko aukera Eibarko dendetan eta tabernetan. | 2,82 | % 6,3 |
| 11 | Euskarazko kultur-eskaintza. | 2,79 | % 9,7 |
| 12 | Guinness errekorra Untzagan 2017/06/22 | 2,71 | % 25,9 |

Oro har, Udalaren ekintzek 3 puntu inguruko balorazioa izan dute. Bereziki nabarmendu dira *Euskaraldia: Ahobizi, Belarriprest, euskara ikasteko aukerak helduentzat eta Eibarren AKEBAI plataforma*. Aldiz, gutxien baloratu dena izan da *Guinness errekorra Untzagan 2017/06/22*.

Herritarrek ezagutzen ez dituzten ekintzak adierazteko “ez dakit” aukera hautatu ahal izan dute. *Astindu hizkuntza-eskubideen ataria* (% 48,7), *Guinness errekorra Untzagan 2017/06/22* (% 25,9) eta *Pertsona etorri berriak euskarara hurbiltzeko baliabideak* (% 21,2) ekintza ezagutzen dituzte gutxien herritarrek.

Gazteei zuzendutako galdetegiaren emaitzak

Eibarko ikastetxeetan zabaldu da galdetegia, eta 428 ikaslek erantzun dute. Galdetegia erantzun duten 10 lagunetik 9 Eibarren bizi dira; besteak inguruko herrietakoak dira. Euskararen ezagutzari dagokionez, galdetegia erantzun dutenen % 94k badaki euskaraz.

Galdetegia bete dutenek beheko taulako ekintzak baloratu behar izan dituzte galdetegian. Horren ostean, euren iritzia adierazteko aukera izan dute.

12. Taula: Institutuetako ikasleek Eibarko Plan Estrategikoan (2016-2025) egindako ekintzen gaineko balorazioa (1etik 4ra). Iturria: Ahize-AEK

| | Ekintza | Bataz besteko puntuazioa | Ez dakit erantzun kopurua |
|----|---|---------------------------------|----------------------------------|
| 1 | C1 edo B2 ziurtagiria lortzeko klaseak. | 3,22 | % 11,7 |
| 2 | Euskararen eguna herrian. | 3,17 | % 8,8 |
| 3 | Eibarren euskaraz bizitzeko aukerak. | 3,10 | % 11,8 |
| 4 | Euskararen eguna ikastetxean. | 3,06 | % 3,5 |
| 5 | Euskara hobetzeko errefortzu saioak eskola orduz kanpo (Ongi etorri euskarara). | 2,97 | % 14,5 |
| 6 | Eibarren AKEBAL. | 2,93 | % 43,1 |
| 7 | Euskarazko aisialdi eskaintza. | 2,92 | % 22,4 |
| 8 | Euskaraldia: Ahobizi, Belarriprest. | 2,91 | % 4,8 |
| 9 | Euskarazko filmen egitasmoa ikastetxean (Tinko). | 2,88 | % 20,1 |
| 10 | DBH4ko Euskal musikaren historia, Coliseoko Baga Biga Higa emanaldia. | 2,77 | % 23,7 |
| 11 | DBH3ko soziolinguistika saioak. | 2,73 | % 24,2 |
| 12 | DBH1eko euskara erabiltzeko motibazio saioak. | 2,63 | % 21,6 |
| 13 | Ikastetxeko bertsolaritza egitasmoak (saioak eta jaialdia). | 2,33 | % 23,4 |

Ekintzen artean ezagunenak Euskararen Egunari lotuak dira. Ikastetxean nahiz herrian egiten diren ekitaldiak ezagutzen dituzte ondoen. Gero datoz C1 eta B2 ziurtagiriak lortzeko eskolak eta euskara hobetzeko errefortzu eskolak. Gutxien ezagutzen duten ekintza *Eibarren AKEBAI* (% 43,1), *DBH4ko Euskal musikaren historia*, *Coliseoko Baga Biga Higa emanaldia* (%23,7), *DBH3ko soziolinguistika saioak* (% 24,2) eta *euskarazko aisialdi eskaintza* (% 22,4) izan dira.

Azkenik, Eibarren euskaraz bizitzeko aukerak badirela adierazi dute galdera horren inguruan egindako balorazioan.

Lan-mahaietan ateratako ideia nagusiak (AMIA)

Herritarrekin zein zinegotzi eta teknikariek egin ziren lan-mahai bietan, bertaratutakoek Eibarren euskararen normalizaziorako dauden oztopo eta aldekoei buruz hausnartzeko aukera izan zuten herritarrek zein zinegotziek eta teknikariek bi lan-mahaietan. Jarraian, ondorioak daude irakurgai:

1. Ezagutza eta erabileraren artean arrakala sumatu dute.

Lan-mahaietako parte hartzaileek argi identifikatu dute euskararen ezagutzak gora egin arren, erabilera ez dela neurri berean hazi. Ikasteko baliabideak, zerbitzuak eta dirulaguntzak egon badaude; dena den, bi lan-mahaietan azpimarratu da ez dela nahikoa eguneroko erabilera bermatzeko.

2. Erabilera baldintzatzen duten inertiak

Lan-mahai instituzionaletan nabarmendu da administrazioan, kirolean eta zerbitzuetan lehenengo hitza maiz gaztelaniaz egiten dela. Udalerriko eragileen ustez inertzia hori etxera, aisialdira eta harreman informalerara hedatzen ari da. Bi ikuspegiak bat egiten dute: erdaldun bakarraren presentziak hizkuntza-aldaketa eragiten du, eta horrek euskararen normalizazioa zailtzen du.

3. Jarrerak, oztopo dira sarritan

Teknikariek, zinegotziek eta herritarrek modu bateratuan azpimarratu dute lotsa, segurtasun falta, gatazkaren beldurra eta estres linguistikoa direla erabileraren oztopo nagusietako batzuk. Bereziki herritarren lan-mahaietan ageri da euskaltzaleen nekea eta erlaxazioa.

4. Euskararen espazioak: aurrerapausoak bai, baina ahulguneekin

Udal ordezkariak eta teknikariek egindako lan-mahaietan nabarmendu da azken urteetan sortutako programak egokiak izan direla; herritarren lan-mahaiak, berriz, espazio horien iraunkortasuna, erakargarritasuna eta eragin erreala jarri dituzte zalantzan. Bi aldeek bat egiten dute ondorio batean: aisialdiaren, kulturaren eta mundu digitalaren esparruetan aurrera egin behar da.

5. Etorkizunerako norabide komun bat

Lan-mahai guztiak ados daude helburu nagusian: euskaraz bizi ahal den herria eraikitzea. Horretarako, teknikari eta zinegotziek tresna eta egitura instituzionalak aipatzen dituzte; herritarrek eta eragileek, berriz, erabilera erosoaren beharra azpimarratzen dute.

INDARGUNEAK/AUKERAK**Ezagutza**

- Euskara ikasteko eskaintza.
- Udal eskoletan euskarazko eskaintza handia dago.

Erabilera

- Klub Deportiboarekin euskaraz aritzeko aukera.
- Berbetanek egiten duen lana.

Motibazioa/sentsibilizazioa

- Haurrei zuzendutako eskaintza handia, eta liburutegia ere badute.

Euskararen espazioak

- Umeak euskaraz aritzeko esparru antolatuak daude.
- Podcastak eta fikziozko telesailak ari dira euskaraz sortzen.
- Herriko elkarteek lan handia egin dute.
- Euskarazko kontzertuak.

AHULGUNEAK/MEHATXUAK**Ezagutza**

- tabernetan euskaraz ulertzen ez duten langileak daude.
- Kirol monitoreek euskaraz ez jakitea.

Erabilera

- Komunikatzeko ohiturak pertsonen arabera dira. Beti gaztelaniaz batzuekin; beste batzuekin, beti euskaraz.
- Elebitasunerako joera.
- Gaztetxoek "nahita" erabiltzen dute euskara gaizki.
 - Hizkuntzaren prestigioa.
 - Taldean erdaldun bakarra dagoenean hizkuntza aldatzeko joera.

Motibazioa/sentsibilizazioa

- Kontzientzia falta.

Euskararen espazioak

- Udal aurrekontuetan euskararen murrizketak egitea.
- Udaletik bilerak deituzkoan batzuetan ordutegi hobea eskaini zaio gaztelaniazkoari, jende gehiago joango dela pentsatuta.
- Gaur egungo egoeran zaila da hizkuntza bakar batean bizitzea: nahitaezkoa da biak erabiltzea.
- Aisialdi eta kultura eskaintzan euskara gutxi dago.
- Globalizazioaren aroan euskarak leku txikia du.
- Sare sozialetan gaztelania da nagusi.

- Gazteek beste eremu batzuetatik edaten dute: AEBetatik.

AURRERA BEGIRADA

- Lehenengo hitza euskaraz izateko joera nagusitzeko bideak jorratu behar dira.
- Euskararekiko atxikimendua eta jarrerak landu behar dira.
- Parametro subjektiboak (emozioak) erabili behar dira euskararen egoera aztertzeko.
- Segregazioa gutxitzeko neurriak hartu behar dira, horrek atzerritarrek udal ekimenetan parte hartzea ekarriko baitu.
- Euskarazkoari lehentasuna eman kontzertu edo ekintza bat antolatu behar denean.

13. Taula: Udal teknikari eta zinegotzien lehenengo lan-mahaiko txandako AMIA. Iturria: Ahize-AEK

INDARGUNEAK/AUKERAK**Ezagutza**

- Euskara ikasteko dirulaguntzak.
- Zerbitzu publikoak daude euskara ikasteko.
- Adin txikikoen euskara ezagutza.
- % 72 euskalduna edo ia-euskalduna.

Erabilera

- Klub Deportiboarekin euskaraz aritzeko aukera.
- Berbetanek egiten duen lana

Motibazioa/sentsibilizazioa

- Atzerritarrek interesa dute.
- Sentsibilizazio kanpainak, abenduak 3, adibidez.
- Euskara integrazio tresna bezala balio du.
- Kulturartekotasunak eman ditzaken aukerak.

Euskararen espazioak

- Ludoteka eta afariketan euskara eskaintzen diren espazioak dira. .
- Paisaia linguistikoa gero eta zainduagoa da.
- Udalean zeharkako gaia da, eta kontratu-dirulaguntza askotan betebeharrak daude.
- Udal barruan eman diren aurrerapausoak (ordenantza, araudiak, barne-erabilera... eta ohitura aldatetarak).
- Kultur produkzioa euskaraz handitu da (antzerkia, musika, zinema...)

AHULGUNEAK/MEHATXUAK**Ezagutza**

- Etorrinen lehentasuna ez da euskara ikastea (egoera zaurgarrian daudelako), baina interesa dute.
- Matrikulak diruari lotuta egotea.
- Kirol arloan askok ez dute euskaraz hitz egiten, ez dakitelako.

Erabilera

- Belaunaldi galduak daude. Euskaraz jakin arren, erabiltzeari utzi zioten testuinguru jakin bategatik.
- Lehenengo hitza gaztelaniaz egiteko joera dago.
- Euskaraz eskaintzen diren jarduerak batzuetan ez dira betetzen.

Motibazioa/sentsibilizazioa

- Ahalduntze falta: lotsa, akatsak egiteko beldurra...
- euskaraz bizitzaren eremu guztietan ezin dela bizi onartu eta konformatu.
- 30-50 urte arteko gurasoen ardura falta.
- Gaiaren konplexutasunak eragina du, eta parte hartzea oztopatzen du.
- Etorri berriek heldu arte ez dute jakiten euskara existitzen denik.
- Aurreiritziak: euskara hizkuntza bezala, ikasteko, ulertzeko, erabiltzeko zailtzat hartzea.
- Gazteen artean euskara estigmatizatuta dago.

AURRERA BEGIRADA

- Eskaintza kulturaletan euskara areagotu.
- Administrazioa euskalduna izatea.
- Helburua argi izatea: herri euskalduna, euskaraz bizi ahal dena.
- Kirolean taldeek euskaraz funtziona dezaten egitasmoak egitea.
- Lehenengo hitza beti euskara izatea, zerbitzu pribatu zein publikoetan.
- Babes judiziala bidea egin ahal izateko.
- Erabilera bultzatzeko ekintzak bideratzea.
- Aisialdia euskaraz izatea.
- Euskaraz eskaintzen diren jarduerak betetzea (jende ugari gerturatzea).
- Euskararen aldeko kultur-jarrera izatea.
- Etorri berriek euskara ikasteko baliabideak izatea eskoletan.

14. Taula: Udal teknikari eta zinegotzien bigarren lan-mahaiko txandako AMIA. Iturria: Ahize-AEK

INDARGUNEAK/AUKERAK**Ezagutza**

- Eibarko euskararen aberastasuna eta malgutasuna.
- Euskaltegiak.
- Euskaraz ikasteko baliabideak.

Erabilera

- Euskararen eusleak. Sarea dago. Hazteko aukera.
- Euskaraz bizi daiteke.
- Ekintzak parte hartzaileak dira.
- Berbetan programa.

Motibazioa/sentsibilizazioa

- ...eta kitto! Euskara Elkartearen lana.
- Korrika
- Udalaren dirulaguntzak merkatari eta ostalarientzako.
- Euskaltegietakiko ikasle kolektibo batzuei emandako dirulaguntzak.
- 0-6 urte arteko gurasoak inplikatuago euskararekin.

Euskararen espazioak

- Hainbat programa: ongi etorri, gurasoak berbetan, udalekuak...
- Ongi etorri euskarara! Udal programa.
- Elkarte batzuen inplikazioa (Klub Deportiboa edo Arrate Kultur Elkartea).
- Eragile asko euskararen alde lanean.
- Tantanez tantan.

AHULGUNEAK/MEHATXUAK**Ezagutza**

- Familiako transmisioa gutxitu egin da.
- Eskoletako baliabideak.
- Ezagutza eta gaitasuna ez dira nahikoa.
- Eibarren beti dago euskaraz ez dakien norbait; ondorioz, gaztelaniaz egiten da.

Erabilera

- Administrazioarekin euskaraz harremantzeko zailtasuna.
- Etxeko erabileran gaztelaniaren nagusitasuna.
- Ez da beharrezkoa euskara. Etorrinek hala ikusten dute.
- Euskaraz dakiten gurasoek etxean gaztelaniaz egiten dute.

Motibazioa/sentsibilizazioa

- Belaunaldi berriek ez dute euskararen lekukoa hartu, eta ez dute hartu nahi.
- Euskaltzaleen nekea, beti borrokan.
- Gatazkaren beldur gara (estres linguistikoa).
- Aurreiritziak.
- Euskal hiztunen erlaxazioa.
- Hizkuntzarekiko sentsibilizazioan, bidelaguntza, jarraipen, baliabide falta modu aiposean bideratzeko.

Euskararen espazioak

- Zerbitzuetako langileen profila aldatu da.
- Sare sozialetan euskararen presentzia baxua da.
- Aisialdi eskaintza murriztua (adin batetik behera izaten da eskaintza).

- Instituzionalki euskararen garrantzia bigarren maila batean jarri da.
- Ostalaritza eta merkatarietzako trabak / zailtasunak euskararen ikuspegiarekiko.

AURRERA BEGIRADA

- Ostalaritza eta dendekin lanketa sakonagoak egin.
- Euskara denok batzen gaituen zerbait izatea, eta hori inork ez zalantzan jartzea.
- Arnasguneak identifikatu, saretu eta indartu (Arrate Kultur Elkarte, Klub Deportiboa...).
- Akonpainamendu egokia egin etorri berriei.
- Familian euskararen erabilera bultzatzeko programak.
- Euskaraz bizi nahi dutenek hori egiteko aukera izatea. Eroso, estresik gabe...
- Estres linguistikoa murriztu.
- Transmisioari eutsi.
- Mundu teknologikoan euskaraz aritu.
- Bertara iristen direnek euskara integrazio- eta errotze-bide, tresna gisa ikustea eta ulertzea.
- Arnasguneak sortu.
- Gizartegintzan eta harrera programetan euskara integratu, laguntzak jasotzeko, adibidez.

15. Taula: Herriko eragileen lan-mahaiko AMIA. Iturria: Ahize-AEK

Elkarrizketak

Diagnosi hau osatzeko 12 eibartar elkarrizketatu dira. Dokumentuaren hasieran adierazi bezala, irakaskuntzan, euskalgintzan eta herriko beste elkarte batzuetan aritzen diren herritarrekin hitz egin da. Jarraian, elkarrizketetan ateratako ideia nagusiak bildu dira.

Lehenik eta behin, euskararen erabilera sustatzeko edo indartzeko 4 arlo aukeratzeko eskatu zitzairen:

1. Aisialdia: 12 elkarrizketatutik 10ek aukeratu dute.
2. Kultura: 12tik 9k.
3. Etxea / familia transmisioa: 12tik 7k.
4. Merkataritza / ostalaritza: 12tik 5ek.
5. Gazteak: 12tik 5ek.
6. Kirola: 12tik 4k.
7. Etorri berriak: 12tik 3k.
8. Irakaskuntza (hezkuntza): 12tik 3k.
9. Ingurune digitala: 12tik 2k.
10. Administrazioa / udala: 12tik 2k.
11. Lan-mundua (industria): 12tik 2k.
12. Euskalduntzea: 12tik 0k.
13. Turismoa: 12tik 0k.

Nola baloratzen duzu herrian egin den lana lau arlo horietan? (elkarrizketatu bakoitzaren balorazioa ekarri da)

- Hezkuntza arloan, familiengana gehiago hurbildu beharko litzateke.
- Akebaiko lanak ondo planteatuta daude, beste kontu bat dira emaitzak. Udalaren aldetik, oso jarrera ona egon da plataformarekiko.
- Arlo desberdinak uztartzeko aukera sortu du Akebaik: aisialdian, esaterako, eragin handia izan du.
- Denborarekin instituzionalizatu egin dela adierazi dute hainbatek. Hasirako indarrari muga jarri zion horrek.
- ...eta kitto! Euskara elkartearrekiko iritzi kontrajarriak agertu dira. Batzuek elkartearen lana balioan jarri dute, urtez urte egin duten lanak emaitza onak ekarri dituelako, esate baterako, Berbetan proiektua eta etorri berriekin egindako lana aipatu dituzte. Beste batzuk, berriz, kritikoa agertu dira.
- Lanak ondo eginda daude. Dena den, orokorrean, dena urardotu da, eta folklorismora heldu da.
- Udalak ekarpen handia egin du. Udal-gobernua eta euskara- edo berdintasun-saila ez dira gauza bera.

- 4 elkarrizketak ez dute gai honetan sakondu.

Beste arloetan egiten den lana nola baloratzen duzu? Uste duzu gehiago landu beharko litzatekeela arloren bat?

- Ikastetxeen bateratzeak eragin nabarmena izan du (3 erantzun).
- Udalak apustu nabarmena egin du umeei eta gazteei zuzendutako programak euskara hutsean izaten. (2 erantzun).
- Euskara ikasteko tasak merkatu behar lirateke (2 erantzun).
- Aisialdiko begiraleek formazioa jaso behar lukete. (erantzun 1)
- Merkataritzan eta ostalaritzan lanketa egiten da, baina ez da ezertara iristen. (erantzun 1)
- Eibar herri euskalduna zela adierazi behar da turismo kanpainetan. (erantzun 1).

Arloz arloko ekimenen diagnostikoa:

- Eibarren Akebai plataforma herritarra:

Elkarrizketatu guztiek ezagutzen dute plataforma. Bederatzik uste du lan handia egin duela plataformak, eta herrian eragina izan zuela, bereziki, bere sorrerak. Hiruk adierazi dute kalean ahulago ikusten dutela.

Elkarrizketatuen iritziz, etorkizunean Akebaik herriko eragileak babestu behar lituzke, erraztasunak eman gauzak antolatzeke. Plataformak berak gauzak antolatzea ez dute horren argi ikusten.

- Guinness errekorra Untzagan:

8 elkarrizketak adierazi dute Akebai gizarteratzeko balio izan zuela, eta garai hartan jendea aktibatu zuela. Inflexio puntutzat jo dute.

- Euskaraldia

Elkarrizketatu baten ustez, beharrezko ekimena da. Lau elkarrizketak, berriz, gainbeheran joan dela iritzi diote, eta hausnarketa baten beharra dagoela. Batek adierazi du herriaren arabera egokitu beharko litzatekeela ekimena.

- Euskararen Eguna (abendua 3).

Eibarren Euskararen Eguna hamabostaldia⁸ izan da hainbat urtez eta hori ideia egokia izan zela adierazi dute, aldarrikapena egun gehiagoz adierazi zelako. Balio sinbolikoa duela diote elkarrizketatuek.

- Astindu, hizkuntza-eskubideen ataria.

Beharrezko ataria dela adierazi dute, eta gutxi batzuk badira ere, erabiltzen dute. Dena den, oraindik bidea topatu behar du. Lau elkarrizketatuen ustez zabaldu egin behar da. Beste bik ez dute ezagutzen.

- Etorri berriak euskarara hurbiltzeko baliabideak

⁸ Euskararen hamabostaldiaren helburua abenduaren 3aren bueltan Eibarren euskaraz edo euskararen inguruan antolatutako ekintza guztiak egitarau bakarrean biltzea, eta horri zabalkundea ematea, ekintza horiek hauspotzeko. Horrez gain, Akebaik berariaz zerbait antolatzen/ekartzen/prestatzen du Hamabostaldiko egitarauan sartzeko.

Baliabideak badaude, baina ez daude ondo koordinatuta. Bideari jarraitu behar zaiola adierazi dute 5 elkarrizketatuk.

- Helduek euskara ikasteko aukerak:

Matrikulazio-prezioak garestiak dira jende askorentzat eta buelta eman behar zaio hiru elkarrizketaturen ustez. Jendeak ikasteko / gehiago erabiltzeko beharra sortu behar dela uste dute bi elkarrizketatuk.

- Eibarren euskaraz bizitzeko aukerak

Aukera gutxi eta zailak dira, oro har, elkarrizketatuentzat. Eibarren euskaraz bizitzea oso deserosoa dela diote. Elkarrizketatuen iritziz eibartar euskaltzaleen diskurtsoa landu behar da.

- Euskarazko kultur-eskaintza

Egon badago, baina beste zabalkunde bat egin behar dela adierazi dute elkarrizketatu gehienek.

- Euskarazko aisialdi-eskaintzak ume eta gazteentzat.

Udalak aisialdia euskaraz izateko ahalegina egin duela adierazi dute elkarrizketatu gehienek. Ezinbestekoa da, eta egiten jarraitu behar da euren iritziz. Eragile guztiek elkarrekin egin behar dute.

- Eibarko dendetan eta tabernetan euskara erabiltzeko aukerak

Ohiturak oso errotuta daude, eta dendaria / tabernaria atzerritarra dela ikusiz gero gaztelaniara jotzen dela adierazi du gehiengoak. Dendetan errazagoa da euskaraz egitea.

Kanpainak egin arren, eraginik ez dela ikusten adierazi dute elkarrizketatu batzuek.

- Kirola euskaraz egiteko aukerak

Elkarrizketatuen ustez entrenatzaile askok euskaraz jakin arren, ez dute euskara erabiltzen. Planean gaiari heldu zaiola diote, eta egin dena ondo egin dela. Bereziki sentsibilizazioan eragin dela adierazi dute elkarrizketatuek.

Euskararen arloa hirian:

Oro har, udalaren euskara arloak ondo funtzionatzen duela adierazi dute elkarrizketatuek. Herri-eragileekin harreman ona duela nabarmendu dute. Proposamenak egiteko unean bertara lasai jotzen dutela adierazi du elkarrizketatuen gehiengoak.

...eta kitto! Euskara Elkartearen inguruan bereziki nabarmendu dute elkarteak urte luzez egin duen lana. Sentsibilizazioan, batez ere, etorri berriak euskara hurbiltzeko ahalegina positiboki baloratu dute. Hedabidea ere bada ...eta kitto!, eta Eibar hiriari horrek ekarri dion onura handia dela iritzi diote askok.

Aitzitik, elkarte berritu gabe dagoela esan dute hiru elkarrizketatuk; esku artean dituzten proiektuak beti berdinak direla.

Eibar orain dela urte batzuk eta gaur egun: ikuspegi historikoa

Zenbateraino euskaldundu da Eibar?

Erabilera jaitsi dela, eta espektatibak beste norabait joan direla azaldu dute elkarrizketatu batzuek.

Arnasgune batzuk badirela, eta horiek mantendu direla diote elkarrizketatu gehienek.

Horrez gain, Udala nabarmen euskaldundu dela nabarmendu dute bi elkarrizketatuk.

Nola irudikatzen duzu hemendik 10 urtera?

Askotariko iritziak jaso dira atal honetan. Bik adierazi dute euskara eta euskal kulturatik kanpo geratzen den horretara gerturatu egin behar dela. Bestela, euskaldunentzat bakarrik egiten diren ekintzak soilik programatzen direla.

Umeak eta gazteak konektatzeko zerbait pentsatu behar dela ere adierazi dute.

Ildo horretatik, herri euskaldunagoa eta euskaldunon artean anitzagoa nahiko lukete. Euskararen ateak zabaldu eta ate zabalagoen artean pertsona mota gehiago sartzen den herria izatea.

Bi elkarrizketatuk ikuspegi ezkorragoa dute. Euren ustez, gaur egungo baldintzek ez dute etorkizun euskaldunagoa izaten laguntzen.

5. Ondorio nagusiak

Atal hau ontzeko Eibarko datu soziolinguistikoez gain, lan-mahaietatik eta elkarrizketetatik ateratako ideiak bildu dira. Datu horien guztien irakurraldia duzue jarraian:

1) Udala eta Akebai plataforma herritarra

Hasteko, Akebai plataforma herritarrak sortu duen koordinazio gunea positiboki baloratu dute lan-mahaietan eta elkarrizketetan. Urteen poderioz higadura apur bat jasan arren, Eibarko euskalgintzari egin dion ekarpena goratu dute. Beraz, halako koordinazio-eremua berrindartu beharko litzateke.

Eibarko Udalaren jarduna, oro har, ondo baloratu dute. Ahalegin berezia egin duela adierazi dute elkarrizketetan eta lan-mahaietan. Batez ere, aisialdian euskaraz izan dadin egindako ahalegina nabarmendu dute. Beraz, bide horri jarraitzea egokia izango da.

...eta kitto! Euskara elkarteri dagokionez, iritzi gehiago egon da. Herriko eragileen lan-mahaietan, berriz, ondo baloratu zuten. Hiriari egin dion ekarpena handia izan baita herritarren arabera. Hain zuzen ere, elkartea 2016-2025ko plan estrategikoa aurrera eramateko hanka garrantzitsu edo nagusienetako bat izan da. Hala eta guztiz ere, interesgarria izango da elkarteak etorkizunean zein funtzio hartu jakiteko hausnarketa estrategikoa bat egitea, bere jarduna Aroa markoaren testuinguruan kokatu eta egonkortu dadin.

2) Ezagutza, erabilera eta transmisioa

Euskal gizarteak ezaugarri esanguratsu bi ditu, euskararen ezagutza eta erabilera eragina izan dezaketenak: batetik, gero eta zaharragoa da; eta bestetik, atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago dago (Iturria: VII. Inkesta soziolinguistikoa). Eibarko datuek ere gauza bera erakusten digute. Beraz, datozen urteotan garrantzitsua izango da egoera soziolinguistiko honi aurre egiteko neurriak hartzea.

Eibartarren erdiak ezagutzen du euskara, eta EAEko batz bestekoa baino altuagoa da ezagutza hori. VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAEn % 36,2 da euskalduna; Eibarren, aldiz, % 53,44. Euskaldun kopurua azken urteetan mantendu den arren, erabilerak beheranzko joera erakusten du; horrek esan nahi du euskaraz aritzeko ohitura gero eta gutxiago dagoela, eta lotura zuzena du hizkuntza batean edo bestean aritzeko daukaten erraztasunarekin. Izan ere, 2016tik 2021era bi puntu egin du behera euskararen erabilerak, % 15ekoa izatetik % 13 izatera igaro da hain zuzen ere.

- Eibarko bi euskaltegietan ikasleen kopuruak gora egin du azken lau urteetan. Datu horiek erakusten dute euskara ikastea beharrezko dela irizten diotela hiritarrek eta zinegotzi zein teknikariek. Aztertu dugun plan estrategikoaren zutabe nagusietako bat izan da helduen euskalduntzea, eta arlo honetan sakondu behar dela ondorioztatu da; izan ere, euskaltegietan ezagutza ez ezik, erabilera lantzen baita.

- Euskal Herritik kanpoko gero eta jende gehiago bizi da Eibarren, eta horien euskalduntzeak eta integrazioak kezka eragiten die herritarrei. Etorri berriei bideratutako aurreko Euskara Planeko ekintzak ondo baloratu diren arren, gehiago eragiteko beharra ikusi da, euskara beraiengana ere gerturatzeko.
- Etorri berri asko egoera zaugarrian daude, eta herrira iritsi arte euskara existitzen denik ere ez dute jakiten. Bide honetan, Eibarren Bizi lehen harrerako programa ondo baloratu da lan-mahaietan zein elkarrizketetan, eta programa honekin berrartzea onuragarria izango da.

Halaber, egun guraso diren edo etorkizun hurbilean izango direnen artean eragiteko beharra dago; helduen artean erabilera igotzeaz gain, euskararen transmisioa sustatuko duelako.

- Euskararen transmisioa apaltzen ari da, izan ere, euskararen ezagutza % 53,44 den arren, haurren lehen hizkuntza % 28,6koa da, eta etxeko hizkuntza % 19,41ekoa; herritarrek kezka erakutsi dute gaiarekin. Hala ere, adinaren arabera erabilera datuek erakusten dute haur eta gazteak direla egun euskara gehien erabiltzen dutenak Eibarren; aldiz, helduen euskararen erabilera jaisten ari da urteek aurrera egin ahala. Nabarmenezkoa da haurren eta gaztetxoek % 30,2k erabiltzen duela euskara kalean.

Klub Deportiboko ekintzek eta Berbetan egitasmoak euskararen erabilerari ematen dioten aukera positiboki baloratu da. Haurrei zuzendutako aisialdi eskaintza ere ondo baloratu da lan-mahaietan eta elkarrizketetan. Ondorioz, aisialdiak garrantzi handia du eta izan behar luke datozen urteetan ere.

3) Eibarko arnaguneak

Euskararen berreskuratze prozesua emango bada, eremuak eta espazioak *arnasgunetzea* gako garrantzitsua izango da. Gaur gaurkoz badira arnagune batzuk: ...eta kitto! Euskara Elkartearen hainbat proiektu, Klub Deportiboa eta haren inguruan biltzen den dantza-taldea, eta Arrate Kultur Elkartea. Arnagune horiek mantentzea, eta berriak sortzea estrategikoa izango da.

Kirol arloa euskara gutxien egiten den esparru gisa identifikatu da elkarrizketetan, galdetegian eta lan-mahaietan. Udalaren dirulaguntzak jasotzeko euskara-plana izan behar duten arren, gero saioak ez dira beti euskaraz izaten. Horregatik, kirolak euskararen berreskuratzean duen indarra erakusteko sentsibilizazio lana egitea mugarri izango litzateke. Gazteen erabilera indartzeko baliagarria izango litzateke eta.

Kultur eskaintzari dagokionez, gazteen egungo kontsumo eredutik urrun dagoela uste dute herritarrek, zinegotziek eta teknikariek; beraz, bertan eragin beharra dagoela ikusi da. Horrez gain, zenbaiten ustez, ez da irisgarria familia guztientzat eta zaugarrienak aisialdi eskaintza horretatik kanpo geratzen dira. Horrek eragin zuzena du hizkuntzaren transmisioan. Hurrengo planean kontuan hartu beharreko gaia izango litzateke.

4) Sentsibilizazioa eta motibazioa

Horrez gain, euskara sustatzeko motibaziorik ere ez dagoela irizten dute; hau da, gaiarekiko sentsibilizazio falta dagoela, batez ere, gazteen artean. Arlo hau garatzeko ekintzak antolatzea gako garrantzitsua izan liteke hurrengo euskara planean.

Azkenik, Eibarko komertzio eta ostalaritzan euskaraz aritzeko oztopoak identifikatu dira; hizkuntzaren ikuspegia lantzeko zailtasuna dagoela, alegia. Horri lotuta, komunikatzeko ohituretan erdarara jotzeko joera dagoela identifikatu da. Sektore horretan eragin beharko litzateke, eta horretarako garrantzitsuak izan daitezke euskara eta merkataritza zein ostalaritza uztartzen dituen kanpaineekin eraginkortasuna lortzea.

6. Bibliografia

- Eustat: Eibarko datu demografiko eta soziolinguistikoak

[https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/eibar.html]

Soziolinguistika Klusterra. 2026. *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa 2021. Eibar.*

[<https://infogram.com/eibar-aurkezpena-1h0n25yrqx50z6p>]

Eusko Jaurlaritzaren. 2021. *VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021: Euskal Autonomia Erkidegoa. Laburpen txostena.*

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eas_ikerketak/eu_def/adjuntos/VII.-INKESTA-SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf]

- IURREBASO, Iñaki. (2023). *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa.* EHU.

[<https://ekoizpen-zientifikoa.ehu.es/documentos/65f9e419df313b50fbe93d96>]